

Behin batean. Peter Kivyren azkena baino gehiago

Once upon a Time. More than Peter Kivy's last

Kepa Korta*

ILCLI eta Filosofia Saila (UPV/EHU)

LABURPENA. Musikaren eta literaturaren eta, oro har, artearen filosofian eta estetikan hainbat lanen egile ezagun izan zen Peter Kivy izan zuen harremana Donostiarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Ez Filosofia sailarekin zuzenean, ILCLIREkin (Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuarekin) baizik. Harreman horrek utzi zuen bere arrastoa artearen filosofia eta estetikako euskal ikerketan; arrasto txikia, baina arrastoa, nolahi ere; datozen urteetan luzatuko dena, itxura guztien arabera. Honako lan hau harreman horren kronika da.

GAKO-HITZAK: musika; kognizioa; hizkuntza; fikzioa; egia.

ABSTRACT. *The late Peter Kivy, author of multiple works in the philosophy of music and literature, and philosophy of art in general, got to know Donostia and the University of the Basque Country. It was not directly through the Philosophy department, but through the Institute for Logic, Cognition, Language and Information (ILCLI). Kivy left an impact on the Basque research on aesthetics and the philosophy of art. A modest impact but an impact that is called to last. This is a chronicle of Kivy's story with Donostia.*

KEYWORDS: *music; cognition; language; fiction; truth.*

* Esker ona adierazi nahi diet *Gogoaren* ebaluatzaile anonimoei eta ILCLiko María de Ponte, Joana Garmendia eta Larraitz Zubeldiari, lan honen aurreko bertsioei egindako zuzenketa eta oharrengatik. LAT ikerketa-taldeari emandako honako dirulaguntza hauez baliatu ahal izan naiz: Eusko Jaurlaritzaren IT1032-16 kodea daramana; eta Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren MCIN/AEI /10.13039/501100011033; PID2019-106078GB-I00 proiektua.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Kepa Korta. ILCLI eta Filosofia Saila. HEFA I. UPV/EHU. Tolosa hiribidea 70. E-20018 Donostia. kepa.korta@ehu.eus  <https://orcid.org/0000-0003-3002-5607>

Behin batean itzul dezakegu *Once upon a time*, Peter Kivyren azken liburuaren titulua. Ipuinak hasteko formula tradizionalaz ari gara, jakina. Eta titulu egokia da literaturaren filosofiaz ari den liburu batentzat; are egokiagoa, monografiko bat ez eta artikuluen bilduma den liburu batentzat. Filosofia ez eta literatur lana balitz, nobela ez, ipuin-bilduma litzateke.

Ez dakit oso egokia den azkena dela esatea, bestalde. Liburua postumoa da, Kivy hil ondotik argitaratua, erabat bukatu gabe zeukan bilduman Aaron Meskin filosofoak egindako edizio-lanari esker osatua. Kivyk berak atondutako azkenaren ondorengoa da, hortaz. Ondorengoetan lehen. Eta ez azkena, agian. Itxura guztien arabera, literaturaren alorrean ez ezik, gutxienez musikaren filosofian ere hainbat lan berri zirriboratuak baitzeuzkan. Nik behintzat badaukat hori pentsatzeko pisuzko arrazoi bat, azalduko dudanez.

Peter Kivyren izena oso ezaguna da artearen filosofia eta estetikaren alorrean, oro har, eta musikaren eta literaturaren filosofian, zehatzago hitz eginda. New York hirian jaio zen 1934an eta New York hirian bertan hil zen 2017ko maiatzean. Gradu-ikasketak Michigango Unibertsitatean egin zituen, masterrekoak Yalen eta doktoregokoak Columbian. Irakasle gisa ia urte guztiak Rutgers Unibertsitatean eman zituen. Ingelesez idatzi zituen 90 artikulutik gora eta 18 liburu gutxienez. Horietako asko hainbat hizkuntzatarara itzuli dituzte. *Gogoaren* orrietara lehen ere ekarri dugu pare bat aldiz, liburu-kritiken bidez (Korta 2003, 2016). Honako hauxe bera ez da liburu-kritika, ordea (ondo bidean, inoiz argitaratuko da hori *Gogoan*). Ez da heriotza-ohar bat ere. Peter Kivyk Donostiarekin izandako harremanaren kronika pertsonala da eta, horrez gain, azalpen bat ere bada estetika analitikoak Donostiarako bidea nondik nora egin duen. Pertsonala eta, hortaz, partziala; baina azalpen bat, nolana ere.

Kivyrekin izan nuen harremana xumea izan zen, baina berealdiko esanahi intelektuala izan zuen niretzat. ICCS-01 kongresuaren kariatara hasi zen, 1999. edo 2000. urtean.

1. Kivy eta Zientzia Kognitiboa

Neroni musikari afizionatu eta filosofo *ofizionatu* izanik, urteak ziren musikaren filosofia ganoraz ikasteko ideia buruan nerabilela. Ideia baino gehiago, mintegi proiekturen bat ere bai. Ezagutzen nituen hainbat filosofia-, hizkuntzalaritza- eta antropologia-lizentziatu eta graduatu musikari finak ere bazirenak. Euskaldunak, gainera. Hona izen batzuk, inoiz proiektua aurrera eramateko ere, ahantz ez ditzadan: Josune Albisu, Gotzon Arrizabalaga, Mixel Aurnague, Ibon Coterón, Gotzon Ibarretxe, Edorta de Pedro eta oraintxe burura ez datorkidan besteren bat. Musikari buruzko jakintza eta filosofia zorrotza uztartzeko bidea aurkitu nahi nuen euskaraz.

Bitartean, gaitzat *musika* proposatzeko aukera izan nuen 1989az geroztik bi urtean behin Donostian antolatzen zen Zientzia Kognitiboko nazioarteko kongresurako (*International Colloquium on Cognitive Science; ICCS*) gai nagusien artean. *Music, Language and Cognition* jarri genion azkenean izena lau gai nagusietako bati, eta horri buruzko bi hizlari gonbidatzea erabaki genuen 2001eko ekitaldirako. Esango nuke Ray Jackendoff izan zela gonbidatu genuen lehenengoa. Ezaguna genuen, beste ICCS batera gonbidatuta nik uste, eta hizkuntzalari aparta izanagatik, Fred Lerdahl konpositorearekin batera musikari buruzko liburu garrantzitsua zuela eta (Jackendoff eta Lerdahl 1983), hari egin genion gonbita. Liburuan esandakoaz harago zer esan berririk ez zuela erantzun zigun, zintzo. Eta agian hark esanda —ez naiz akordatzan—, izan genuen Jesus Mari Larrazabalek eta biok Peter Kivyren eta Laird Addisen berri. Azken horrek (Iowako unibertsitatekoa bera) euskaraz eman zidan baiezkua.¹ Komunikazioetarako e-postaren

¹ Addistarrek Euskal Herrian zuten alaba biolontxelo-jotzailea, eta izanak ziren Donostian lehen ere. Beste batean segi beharko diot hari honi, akaso.

ordez faxa erabiltzeko proposamenarekin iritsi zen Kivyren eskutitza. Etxeko faxera bidaltzeko, mesedez, bidali beharrekoak.

2001eko maiatzean egin genuen ICCS-01 Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean —gaur egun Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia (HEFA) fakultatearen I eraikina esaten zaion horretan—. Gai nagusiaren izenburu bera hartu zuen Kivyk bere hitzaldiarentzat. Aitortu zuen ez zela zientzia kognitiboetan oso aditua eta gure proposamenaren harira hasi zela hiru kontzeptu horien arteko loturei xeheki begira. Argudiatu zuen, emozioekin daukan lotura estuaz gain, musikak baduela harremana kognizioarekin; uste baino handiagoa. Hizkuntzarekin daukan lotura, berriz, uste baino txikiagoa dela. Musika hizkuntza dela dioen metaforak mesede gutxi egiten diola musikaren —musika huts edo absolutuaren— izaerari buruzko jakintzari. Bere hitzaldiari laguntzeko CD bat jarri nahi zuela-eta, aretoan musika-ekiporik izango ote genuen galdetu zigun. Akordatzen naiz Mozarten pasarte batzuk jarri zituela, paperean musika irakurri ezin zuenarentzat lagungarri. Hitzaldia oso ondo joan zen. Kongresua ere bai. Donostiatik alde egin baino lehen alde zaharrean afaltzera gonbidatu ninduten Kivytar eta Addistarrek. Filmetako newyorktar judu ezkon-bikote tipikoa ekarri zidaten gogora lehenengoek, Woody Allenen hainbatetan erakutsi digun horietako bat. Oboe-jotzailea zen Kivy, baina ez oso eszentriko edo maniatikoa, itxura batean. Ile kizkur luze beltza zuen Joan emazteak. Ez zioten urdaiazpikoari muzinik egin, nik uste. Oso atseginak izan ziren denak nirekin.

Jan-edana gozatzeaz gain, musikaren filosofiaz nire burua janzteko aholkuak eman zizkidaten Kivyk zein Addisek. Azken honek eman zidan aditzera aurrean nuela giltza. Garaiko artearen filosofo garrantzitsuenetako bat zen Kivy. Eta haren lanak izan zitezkeen artearen filosofia eta estetikan, oro har, eta musikarenean eta literaturarenean, zehatzago, sartzeko ate egokia. Kivyk filosofo analitikoaren zorrotasuna, argitasuna eta zintzotasuna dauzka; murtxika daitekeen neurrian egiten du hozka: “arteei buruzko nire gogoeta filosofikoek espia solte gisa etortzeko joera izan dute, ez batailoietan” (Kivy 2020: xi).² Eta oso eskertzekoa da hori, filosofo “kontinental”en deklarazio arranditsu, ilun eta maiz dogmatikoen aldean; arteari edo “sublimeari” edo “ezin adierazizkoa”ri buruz ari direnean, bereziki. Kivyren analitikotasunak ez du maiz horri lotu zaion ahistorizismoaren arrastorik, hala ere. Filosofiako nahiz musikako edo literaturako klasikoek jakite sakona daukala erakusten du eta haiek hartzen ditu maiz jopuntuan, erudizio-erakustaldi antzuetan sekula erori gabe. Behin obra eta pertsona ezagututa desengainurik eragiten ez duen kasu (bakan?) horietako bat da Kivy. Obra filosofikoaren parekoa da gutxienez autorearen, pertsonaren tamaina.

“Music, Language and Cognition” tituluarekin argitaratu zuen artikulua, Larrazabalek eta biok Kluwer argitaletxerako atondutako liburuan (Korta eta Larrazabal (arg.) 2004). Handik pixka batera bere artikuluen bilduma batean argitaratzeko baimena eskatu zigun, eta artikuluen titulu bera jarri zion bildumari berari (Kivy 2007). ICCS-01eko gai nagusi baten izena izatetik XX. eta XXI. mendeetako musikaren eta literaturaren filosofo garrantzitsuenetako baten liburu baten izenburu izatera pasatu zen gure proposamen bat. Filosofiari egindako ekarpen txikiagoekin ere inoiz poztu eta harrotutakoa naiz; nahiz eta Kivyk bere esker onetan (Kivy 2007: xii) Donostiaz egindako aipamenean bertute filosofikoak gastronomikoen maila berean agertzen direla esatea ez litzatekeen erabat zuzena.³ Pertsonaren berri zuzen gutxi izan nuen hurrengo hamarkada luzean. Haren lana sakonago eta zabalago jorratzeko parada izan nuen, hala ere, bakarka nahiz graduondoko ikasleekin batera. Zorionez, ez naiz izan inguru hauetan bakarra

² [my philosophical thoughts on the arts have tended to come as single spies rather than in battalions.]

³ Aitortu beharra daukagu: Donostiaren meritu gastronomikoak askoz estimatuagoak dira munduan filosofikoak, zientifikoak edo artistikoak baino, sukaldariek ere artista, zientzialari edo filosofo plantak egin ohi dituzten garai hauetan.

arteari buruzko filosofia zorrotza eta jakintza zientifikoa egiteko aukerak erakarri duena, arteari buruzko sasi-filosofia edo “meta-arte” saiakera antzuekin konformatu ez dena.

2. Bigarren bisita

ILCLlren graduondoko programan Nottinghameko unibertsitateko Stefano Predelli hizkuntzaren eta musikaren filosofoak irakasten zuen “Language and Art” (“Hizkuntza eta Artea”) gaia hasieran.⁴ 2012an ustekabean huts egin zuen eta saiatu ginen Alex Neill Southamptongo unibertsitateko zinemaren filosofoa fitxatzen. Kudeaketa-arduretarako izendatu berria zen, hala ere, eta ezin zuen halako konpromisorik hartu. Zulo hori bete eta ikasleei gaia ahalik eta txukunen irakatsi beharra erabili nuen nik artearen filosofiako formakuntza propioarekin jarraitzeko. Laster etorri ziren emaitzak master-tesi gisa. Baina, batez ere, doktorego-tesi batek bultzatu ninduen Kivyri berriz idaztera, oraingoan e-postaz, faxaren garaia honezkero gauditua izango zuelakoan.⁵ Kivyk emankor jarraitzen zuela erakusten zuen *De Gustibus* (2015) ederraren argitaratzeak.

2016ko maiatzaren 4an egin nion gonbita. Egun berean erantzun zidan. Egia da e-postaz ohikoa dela egun berean erantzutea eta are mezu-trukean elkarrizketa luzea osatzea ere. Baina AEBetara eta batek miresten duen pertsonaia bati bidalikoetan, erantzuna halako abiatan jasotzeak ni behintzat hunkitu egiten nau oraindik.

Zaharra zela gaztigatu zidan eta ea bidaiara lehen klasean egin zezakeen galdetu. Gure diru-iturri publikoek horrelakorik ez zutela uzten, eta bisita bertan behera geratuko zela pentsatu nuen. Izapideren bat ere egin nuen unibertsitate-agintariekin, gonbidatuaren adina eta bikaintasuna kontuan hartuta, arauak salbuespenik onartuko zukeen argitzeko. Ezezkoa jaso nuen. Baina aurrera segitu zuen plana zehazteko mezu-trukeak. Egonaldia ere ezin izango genuen hitzaldiaren bezperatik biharamunera arte baino luzatu, eta egonaldiak zentzuren bat izatekotan bi hitzaldi izan beharko ziren gutxienez. Astelehenean eta ostiralean jarriko genituen hitzaldiak, horrela aste-bukaerak ere Donostian igaro ahal izateko. Urte hartako urrirako aurreikusituen: musikaz bat, literaturaz bestea. Bederatzi hitzaldiren laburpenak bidali zizkidan, horien artean aukeratzeko. Uste dut interes historikoa daukala bederatzia hitzez hitz hemen jasotzeak.

⁴ “Cognitive Science and Humanities” master- eta doktorego-ikasketak antolatzen zituen hainbat urtez ILCLl. Ingelesean izanda, EHUko filosofia-ikasle gutxitxo matrikulatzen zen (ez Filosofiako *gastelaniazkoan* baino gutxiago, gero jakin ahal izan dugunez), baina hainbat ikasle jaso genuen hainbat urtetan Euskal Herriaz kanpotik: AEBak, Argentina, Belgika, Bulgaria, Gales, Galiza, Gaztela, Grezia, India, Maroko, Polonia... etortzen zaizkit oraintxe bertan burura. Tesi eder morderka idatzi eta irakurri ziren ingelesez gurean. Ikasketa horiek itxi egin zituen unibertsitateak, hala ere. Bikaintasuna, eleaniztasuna eta nazioartekotzea hitzetik hortzera darabiltzaten unibertsitate-agintariak kalitatea aipatu bai baina kantitate dute irizpide, eta erraz erazten dituzte urteetako esfortzuak, sokakoak ez dituzten irakasle eta ikertzaileenak direnean behintzat.

⁵ Artearen eta estetikaren alorrean urte horietan zuzendutako master-tesiak Ana Agirrebaltategi (2014), Hilde Cocquyt (2014), Aida Fernández-Cotarelo (2015) eta Nahuel Recabarrenenak (2015) izan ziren. Agirrebaltategirena musikaren filosofiari buruzkoa zen, eta zeresan handia zuten bere lanean Kiviren (1993) formalismo “hobetu”ak eta Sibleyren (1959) kontzeptu estetikoaren analisisian oinarritutako propietate estetiko eta artistikoen proposamenak. Oso garrantzitsua izan zitekeen berretzat Kivyrekin aurrez aurre hitz egiteko aukera.

3. Laburpenak

Lehen zortzi laburpenak mezu batek atxikita zeramatzan zortzi artxibotan bidali zizkidan, 2016ko maiatzaren 10ean.

Guztiek azpian bere izen-abizena eta afiliazioa dute. Lehenengoak honako hauxe:

Peter Kivy
Gobernadoreen Batzordearen Filosofia Katedraduna
Rutgers Unibertsitatea⁶

Gainerakoek, beste hau:

PETER KIVY

Rutgers Unibertsitatea
New Brunswick⁷

Neuk ekarri ditut euskarara eta, *Gogoaren* irizpideei jarraiki, oin-oharretan jaso ditut jatorrizkoak. Akats tipografiko nemiñoren bat edo beste zuzendu dut soilik.

Beharbada komeni da gaztigatzea, ordenagailuaren erabilera orokorrarekin batera edo ondoren sortutako belaunaldiei, idazmakina arruntean ez zegoela letra etzana erabiltzerik, eta, eskuzko idazketan bezala, azpimarrak betetzen zituela horren funtzioak (enfasia adieraztea, liburuen eta aldizkariaren tituluen idazketa eta hizkuntza arrotzetako hitzena, eta horrelakoak). Beste askori bezala, Kivyri ere ordenagailuak ez zion idazmakinako ohitura aldatu, eta berak jarritako tokian utzi ditut azpimarrak.

GERTAKARIAK FIKZIOETAN

Laburpena

Gako-hitzak: Estetika; Fikzioa; Gertakaria

Inork ez du ukatzen eleberriek gertakarien jakintza eskain dezaketarik, zuzenean nahiz zeharka. Baina artearen filosofo eta literatur teoriagile gehienek ukatu egingo lukete, nik uste, jakintza hori eskaintzea eleberriaren egiteko propioa denik eleberri gisa, artelan gisa. Eta, ondorioz, ukatu egingo lukete baita ere eleberria irakurriz gertakarien jakintza hori irabaztean irakurleak har dezakeen atsegina eleberriaren atsegina denik, eleberri gisa, artelan gisa; zentzu horretan atsegin “ez-zilegia” izango litzateke, nolabait esatearren.

Aldiz, nik uste dut eszeptiko horiek (halaxe deituko diet) oker daudela erabat. Uste dut eleberri batzuen funtzioetako bat dela gertakarien jakintza zuzen nahiz zeharka eskaintzea, eleberri gisa, artelan gisa; eta, areago, irakurleek hartzen duten atsegina halako jakintza eskaintzen duten eleberrietatik irabaztean eleberrien atsegina dela, eleberri gisa, artelan gisa, eleberriak kontu dezakeen istorioan hartzen duten atsegina den bezain ziur. Bestela esanda, eleberri-irakurketaren atsegin “zilegia” da, zentzu horretan.

⁶ Peter Kivy
Board of Governors Professor of Philosophy
Rutgers University

⁷ PETER KIVY

Rutgers University
New Brunswick

Baieztapen horiek defendatu egin behar dira, jakina, eszeptikoaren aurka. Eta halaxe egingo dut nire ikuskeraren aurkako objekzio eszeptiko nagusizat hartzen ditudanak banan-banan azalduz, eta banan-banan erantzuten saiatuz.⁸

TXANTXETAKO MORALTASUNA

Laburpena

Jokes: Philosophical Thoughts on Joking Matters liburu burutsu eta zorrotzaren azken kapituluan, Ted Cohen zenak honako auzi honi heldu zion: “uste sendo zabaldua, nik partekatua, txantxa batzuk batzuetan, eta agian txantxa batzuk beti, ‘gustu txarrekoak’ direla, esan ohi dugun bezala, eta moralki arbuiagarritzat hartu beharko liratekeela.” Ni hemen “txantxa batzuk... moralki arbuia^{garri}ak” edo, hitz batez, immoralak direla dioen baieztapenez arituko naiz soilik. Egiazkoa dela uste dut. Lan honetan bi gauza egiteko asmoa dut. Lehenbizi, azaltzeko asmoa dut zer den hainbat txantxatan moralki kezkarri irizten dioguna, hots, zerk egiten dituen immoral. Bigarren, azaltzeko asmoa dut nire ustez nola jokatu beharko genukeen halako txantxa immoralekin.⁹

⁸ FACTS FROM FICTIONS

Abstract

Key Words: Aesthetics; Fiction; Fact

No one denies that novels can impart factual knowledge both directly and indirectly. But what most philosophers of art and literary theorists would, I think, deny is that the imparting of such knowledge is part of the novel’s proper function qua novel, qua artwork. And, therefore, they would deny as well that the pleasure a reader may take in the gaining of such factual knowledge from novel-reading is pleasure in the novel, qua novel, qua artwork; so it is in that sense, so to say, an “illegitimate” pleasure.

I believe, however, that such skeptics, as I shall call them, are seriously mistaken. I believe that one of the functions of some novels, qua novel, qua artwork, is the imparting, directly and indirectly, of factual knowledge; and, furthermore, that the pleasure readers take in gaining such knowledge from novels that impart it is pleasure in the novels, qua novel, qua artwork, as surely as is the pleasure they take in the story the novel may tell. It is, in other words, in this sense, a “legitimate” pleasure in novel-reading. These claims must, of course, be defended against the skeptic. And I shall do that by raising, one by one, what I take to be the major skeptical objections to my view, and one by one attempting to answer them.

⁹ JOKING MORALITY

Abstract

In the final chapter of his wise and witty book, Jokes: Philosophical Thoughts on Joking Matters, the late Ted Cohen addressed, as he put it, “the widespread conviction, shared by me, that some jokes on some occasions, and maybe some jokes on all occasions are, as we say, ‘in bad taste,’ and should be thought of as morally objectionable.” I am concerned here exclusively with the claim, which I think is true, that “some jokes...are morally objectionable,” or, in a word, immoral. And in this paper I intend to do two things. First, I intend to explain what I think it is we find morally upsetting about some jokes, which is to say, what makes them immoral. Second, I intend to explain how I think we should deal with such immoral jokes.

JAKINTZA ETA ELEBERRI-JAKINTZA:
QUELLE DIFFERENCE?

Laburpena

Maiz idatzi dut, eta batzuetan luze, literaturak, bereziki eleberriak, bere irakurleei jakintza eman diezaiekeen auziari buruz, literatura gisa, eleberririk gisa duen funtzio zilegi modura. Ez ditut gai horri buruzko nire iritziak aldatu, eta ez daukat, hortaz, zer damurik. Baina orain badauzkat, esan dezagun, gaiari buruzko haragoko iritziak, lehenagoko iritzien hainbat alderditan enfasia aldatzeko joera daukatenak. Iruditu zait, hortaz, auzi osoa berrikustea komeni dela orain.¹⁰

MUSIKA, ETA EMOZIOEN TEORIA EZ-KOGNITIBO BAT

Laburpena

Duela urte batzuk nire buruari zin egin nion inoiz ez nuela berriz idatziko musika eta emozioei buruz, nire ustez zeharo agortuta zegoen gaia baitzen. Orain, ordea, behartuta sentitzen naiz nire zinean atzera egin eta gaiari berriz heltzera. Musika eta emozioei buruzko nire azalpena aurkeztu eta defendatu dudan urteetan zehar, tradizio analitikoko filosofo ia guztiek onartzen zuten emozioen teoria kognitiboa; eta nire azalpena teoria horretan oinarritzen zen. Baina azken urteotan aurkari indartsu bat sortu zaio teoria kognitiboari, Jesse Prinzen eskutik: gorpuztutako balioeste teoria. Nire xedea lan honetan da argudiatzea, emozioen gorpuztutako balioeste teoria zuzena balitz ere, musika eta emozioei buruzko nire azalpena bateragarria dela horrekin, eta bere horretan dirauela.¹¹

¹⁰ KNOWLEDGE AND NOVEL KNOWLEDGE:
QUELLE DIFFERENCE?

Abstract

I have written often and at times at length on the question of whether and how literature, particularly the novel, might impart knowledge to its readers, as a legitimate function qua literature, qua novel. I have not changed my views on the matter, so have nothing to recant. But I now have, shall we say, further views on the matter which tend to alter the emphasis I put on the various aspects of my previous views. So it seemed to me that a re-examination of the whole question is now in order.

11

MUSIC AND A NON-COGNITIVE THEORY OF THE EMOTIONS

Abstract

Some years ago I took a vow to myself never to write again on what I believed to be the completely exhausted subject of music and the emotions. I now however feel obliged to go back on my vow and take it up again. During the years I expounded and defended my account of music and the emotions the cognitive theory of the emotions had come to be almost universally accepted by philosophers in the analytic tradition; and my account was predicated upon that theory. But in recent years a powerful rival to the cognitive theory has emerged, owed to Jesse Prinz, which he calls the embodied appraisal theory. My object in this paper is to argue that even if the embodied appraisal theory of the emotions is the correct one, my account of music and the emotions is consistent with it and still stands.

MUSIKAREN ETA FILOSOFIAREN ARTEKO BERREZKONTZA BERRIAZ

Laburpena

Platonengandik hasita, filosofoek, filosofo batzuek gutxienez, aztergai filosofiko egokitzat hartu izan dute musika, noizik eta behin. Eta, jakina, XIX. mendean garrantzi filosofikoaren ordu arteko gailurrera igo zuten musika Schopenhauerrek eta Nietzschek. Baina musikak filosofiarekin egindako ezkontzak dibortzioan bukatu zuen XIX. mendea bukatzerako, eta, orobat, orduan beherakada sakona gertatu zen arteen estudio filosofikoarena tout court. Hala ere, 1960ko hamarkadaren azken aldera estetikan eta artearen filosofian gertatutako interes-gorakadarekin, ezinbestekoa zen filosofia eta musika berriz ezkontzea. Eta berrezkontza hori, pasa diren hogeita hamabost bat urteotakoa edo, da hitzaldi honetan aztertzeke asmoa dudana.¹²

KONTAIDAZU IPUIN BAT!

Laburpena

Esango nuke haur batek esaten duen lehen perpaus osoetakoa dela honako hau: "Kontaidazu ipuin bat!" Fikziozko narrazioaren atsegina azaleratzen den adin goiztiarrak ohartarazten digu zein sakon errotuak dauden "giza izaeran" fikziozko narraziorako desioa eta hori sortzeko joera. Nire kezka hemen honako hau da: jakin nahi dut gizakiek zergatik duten horren gustuko narraziozko fikzioa entzutea eta irakurtzea. Literaturaren filosofiako galderarik oinarrizkoena iruditzen zait niri. Egiaz, galdera txundigarria da hizkuntzaren filosofian ere, John Searle lekuko: "Azken finean giza hizkuntzari buruzko gertakari arraroa, bitxia eta harrigarria da fikzioaren posibilitaterako tartea uztea bera". Searlek jarraitzen du, "zergatik lotzen dizkiegu horrelako garrantzia eta esfortzua batez ere alegiazko hizketa-ekintzak dauzkaten [fikziozko] testuei?". Hori da hemen aintzat hartu nahi dudana galdera.¹³

¹² ON THE RECENT REMARRIAGE OF MUSIC TO PHILOSOPHY

Abstract

Philosophers since Plato, at least some philosophers, have, from time to time, seen music as an appropriate object of philosophical scrutiny. And, of course, in the nineteenth century, Schopenhauer and Nietzsche elevated music to a level of philosophical importance never reached before that time. But the marriage of music to philosophy ended in divorce at the close of the nineteenth century, and, as well, there occurred a sharp decline in the philosophical study of the arts tout court. However, with the rise of interest in aesthetics and the philosophy of art, in the late 1960s, it was inevitable that philosophy and music should again enter into matrimony. And it is that remarriage, during the past thirty five or so years, that I intend to explore in the present lecture.

¹³ TELL ME A STORY!

Abstract

I conjecture that one of the first complete sentences a child enunciates is: "Tell me a story!" The tender age at which the pleasure in fictional narrative manifests itself presses upon us the realization of how deeply ingrained in "human nature" the desire for, and the propensity to create, fictional narrative really are. My concern here is this. I want to know why human beings are so fond of listening to and reading narrative fiction. It seems to me to be the most basic question in the philosophy of literature. Indeed, it is a perplexing question in the philosophy of language as well, witness John Searle's observation that "It is after all an odd, peculiar and amazing fact about human language that it allows the possibility of fiction at all." Searle continues, "why do we attach such importance and effort to [fictional] texts which contain largely pretended speech acts?" It is that question that I wish to consider here.

DANTZARIA ETA DANTZA:
IRAKURTZEA PERFORMANTZIA GISA

Laburpena

Poetak idatzi zuenean “Nola bereiz dezakegu dantzaria dantzatik?” poeta zen egiazki, ez filosofoa. Baina planteatu zuen kontua sakona da artearen filosofian, eta ez naiz horixe dioen lehen filosofoa. Yeatesen lerroaren ekarria hainbat modutara interpretatu da. Nire helburua hemen da interpretatzea halako moduz ezen nire The Performance of Reading liburuan egiten dudana baieztapen baten alde egiten lagunduko baitit. Baieztapen hori da eleberririk irakurketa isila “performantzia” klase bat dela. The Performance of Reading liburuan defentsa bat eskaini nuen honako objekzio honen aurka: performantziak, bere horretan, arte-objektuak dira, edo kontenplazio estetiko objektuak gutxienez; eta eleberririk irakurketa isila ezin da hori izan; ezin dira bere horretan kontenplazio objektutzat hartu. Lan honetan funtsean egin dudana da performantziaren tesi horren defentsa bat eskaintzea orduan eskainitakoarekin bateragarria ez dena. Zein defentsa den zuzena (bietakoren bat zuzena bada), ni ere ez nago ziur.¹⁴

PLAGIATZAILEA AL ZEN HANDEL (ETA ZERGATIK AXOLA ZAIGU)?

Laburpena

Musikologoek eta Handelen musikaren beste ikasle batzuek ondo dakite Handelek beste musikari batzuen lanak bere lanetan erruz erabili zituela, inoiz inolako aitortzarik egin gabe musika hartu zien horiei. Izatez, beste konpositoreen lanen erabilera horiek horren muturrekoak eta ohikoak ziren, ezen Sedley Taylor honako hau ondorioztatzera bultzatu baitzuten, gaiari buruzko The Indebtedness of Handel to the Works by Other Composers lan klasikoan: Handelen “hilik nahiz bizirik ziren beste konpositoreen lanen bereganatzeak... moduetan nahiz hedaduran askoz urrunago joan ziren lehen mailako beste edozein konpositoreri buruz egiaztatu den edo soilik baieztatu ere egin den beste edozer baino”. Gertakari eztabaidaekin horren aurrean, hitzaldi honetan, bi galdera planteatu eta, ondo bidean, erantzutea espero dut. Lehenbizikoa galdera morala da: Handel plagiatailea al zen? Eta baietz erantzungo dut. Baina bigarren galdera da askoz gehiago interesatzen zaidana eta, dakidan heinean, ez du inork planteatu. Eta ez da galdera morala, estetikoa baizik, artearen filosofiako galdera, alegia: nola entzun behar ditugu Handelen lanetako plagiaturako mugimendu horiek, plagiaturakoak direla jakin eta

¹⁴ THE DANCER AND THE DANCE:
ON READING AS PERFORMANCE

Abstract

When the poet wrote “How can we tell the dancer from the dance?” he was indeed a poet, not a philosopher. But the question he put is a profound one in the philosophy of art, as I am not the first philosopher to observe. The import of Yeates’s line has been variously construed. My own purpose here is to construe it in such a way as to help me work my passage to something like a defense of my claim, in The Performance of Reading, that silent novel-reading is a kind of “performance.” What I have essentially done in the present paper is offered a defense of the thesis that is inconsistent with the defense I offered in The Performance of Reading, against the objection that performances are art objects, or at least objects of aesthetic contemplation, in their own right, and silent readings of novels cannot possibly be that: cannot possibly be treated as objects of contemplation in their own right. Which defense (if either) is the correct one, I am not myself sure.

gero? Galdera garrantzitsua eta baztertua iruditzen zait hori, eta hitzaldiaren gai nagusia izango da.¹⁵

Asteartez bidali zizkidan, gauean. Ordu erdi bat geroagoko mezuan bidali zidan bederatzigarrena. Itxura batean, hurrengo goizean jaso nuen:

LANA PROTOTIPO GISA

Laburpena

Hitzaldi honetan deskribatu nahi dut nola egin diren mendebaldeko musikaren arte-“lanak”, behin notazio musikal bat asmatu ondoren “lana”ren performantzia gutxi gorabehera egokiak eratoritzea posible egin duena. Eta iradokiko dut lan horiek egin direla “-a” artikulua definitua jartzen zaizkien gauza klase arruntak —amerikar bandera, mendebaldeko zela, DC-3a, eta abar— nire ustez egiten diren modu berean. Argudioaren atzean susmoa dago batzuei problemarik gabea iruditzen zaiela amerikar banderaren gisako “gauza” arrunt bat nola egiten den: egiten da erraz identifikatzeko moduko objektu fisiko bat sortuz; lehen amerikar bandera, alegia. Musika-lanaren sorreran ez dago helburu bera betetzen duen erraz identifikatzeko moduko objektu fisikorik. Hutsune hori betetzea espero dut hemen.¹⁶

¹⁵WAS HANDEL A PLAGIARIST (AND WHY SHOULD WE CARE)?

Abstract

It is well known to musicologists and other students of Handel’s music that Handel used the works of other composers copiously in his own works without ever giving any credit at all to those whose music he appropriated. Indeed, so extreme and frequent were these uses of other composers’ works that Sedley Taylor, in his classic treatment of the subject, The Indebtedness of Handel to the Works by Other Composers, was moved to conclude that Handel’s “appropriations from the works of other composers, living and dead went...both as to their character and their extent, far beyond anything that has been established, or even asserted of any other composer of the first rank.” Given this incontestable fact, I propose, in this lecture, to raise and, I hope, to answer, two questions. The first is a moral question: Was Handel a plagiarist? And I shall answer that question in the affirmative. But it is the second question that interests me far more and has, so far as I know, never been raised. And that is not a moral question but, rather, an aesthetic question, a question in the philosophy of art, namely, how are we to hear these plagiarized movements in Handel’s works, after we learn they are plagiarized? That it seems to me both an important and neglected question, and will be the major subject of the lecture.

¹⁶ WORK AS PROTOTYPE

Abstract

In this lecture I want to describe how “works” of Western art music have come into being since the advent of a musical notation from which a reasonably accurate performance of “the work” can be derived. And I will be suggesting that such works have come into being in the way I consider ordinary kinds of things come into being that are prefixed with the definite article “the”: the American flag, the Western saddle, the DC-3, and so forth. Behind the argument is the suspicion that it seems to some unproblematic how an ordinary, garden-variety “thing” like the American flag comes into being: it is brought into being by the creation of an easily identifiable physical object, namely, the first American flag. Whereas there is no easily identifiable physical object serving the same purpose in the creation of a musical work. It is that gap that I hope here to fill.

Eta horiek dira lehen mezu-trukean bidali zizkidan laburpenak. Bederatzi, guztira. Musikaren filosofiari buruzkoak, lau. Literaturaren filosofiakoak, bost. Bi aukeratu behar nituen. Pentsatuko duzuen bezala, aukera ez zen erraza izan. Proposatu nion hitzaldien fusio moduko bat egitea, bizpahirunarekin literaturari eta musikari buruzko hitzaldi bana osatzeko. Halakorik ezingo zuela egin erantzun zidan eta, azkenean, musikaren alorrean, Agirrebaltzategiren emozioei buruzko interes zuzenaz pixka bat ahaztuta, ontologiari buruzko “Lana prototipo gisa” hautatu nuen. Literaturaren alorrean, bi aukera utzi nizkion bizirik: “Fikzioetatik gertakariak” eta “Jakintza eta eleberri-jakintza”. Bere esku utzi nuen azken erabakia, jakina.

Bere hautuak nire proposamenari jarraitu zion musikaren kasuan. Literaturari buruz, bukatu berria zuen beste lan bat aurkeztea erabaki zuen, ordea. 2016ko uztailaren 7an bidali zidan laburpena. Honako hauxe:

ISTORIOAN MURGILDUTA:
LITERATURAREN FILOSOFIAKO SAIKERA BAT

Laburpena

Art Rethought liburu berrian, Nicholas Wolterstorffek honako galdera hau egiten du: “Garai modernoko artearen filosofoek zergatik aurkeztu zuten unibertsaltzat soilik arte-forma partikularrez eta artean murgiltzeko modu partikularrez dena egiazkoa?” Eta bere erantzuna, Art in Action aurreko liburuan honezkero proposatua zuena, da “garai modernoko filosofoek [Art in Actionen] arte gorenaren erakunde modernoa esan nionean jarri ohi zute[la] begia”. Art Rethoughten Wolterstorffen kezka da arte gorenez bestelakoak eta horietan murgiltzeko modu desberdinak gogora ekartzea, alderatzeko artearen filosofo modernoek arte gorenean murgiltzeko modua ezaugarritu izan ohi duten modu bakarrarekin; hots, Wolterstorffek atentzio desinteresatuko jarrera gisa ezaugarritzen duenarekin. Art Rethoughten Wolterstorffek duen kezkaren ildoan, hari lotutako gai bat ekarri nahi dut hona, alegia, arte gorenean normalean murgiltzen direnez eta murgiltzeko moduei buruz idatzi ohi dutenez bestelako pertsona klase bat nola murgiltzen den arte goren horretan berean. Areago, gogoan daukadan bestelako pertsona klasea “irakurle arrunta” esango diodana izango da, eta gogoan daukadan arte gorena literatur fikzioa; eleberria, bereziki.¹⁷

¹⁷ SWEPT UP IN THE STORY:

AN ESSAY IN THE PHILOSOPHY OF LITERATURE

Abstract

In his recent new book, Art Rethought, Nicholas Wolterstorff raises the question: “Why have philosophers of art of the modern period often presented as universal what is true only of particular forms of art and particular ways of engaging art?” And his answer, which he had already proposed in an earlier book, Art in Action, is “that philosophers of the modern period have typically had their eye on what I called [in Art in Action] our modern institution of high art.” In Art Rethought Wolterstorff is principally concerned with adducing arts other than the high arts and the various different ways we engage in these arts from the one way modern philosophers of art have tended to characterize the way in which we engage high art, namely, the way Wolterstorff characterizes as the attitude of disinterested attention. In the spirit of Wolterstorff’s concern, in Art Rethought, I would like here to broach a related issue, namely, how a different kind of person from those who customarily engage in and write about their engagement in high art engages in the very same high art. Furthermore, the different kind of person I have in mind is what I shall call the “ordinary reader,” and the high art I have in mind is literary fiction, in particular, the novel.

Azken hori izen-abizenekin sinatzen du soilik, letra larriz, afiliatorik batere jarri gabe. Sei izan ziren guztira, azkenean, literaturaren filosofiako laburpenak, eta lau musikakoak.

Azkenean “Lana prototipo gisa”¹⁸ eta “Istorioan murgilduta” erabaki genituen 2016ko urriaren 24tik 28rako astean Filosofia fakultateko areto nagusian eta Carlos Santamaria Zentroarenean egiteko hitzaldi banatarako. Publiko orokorrak, edo unibertsitarioak behintzat, ulertzeko moduko hitzaldiak izango zirela esan zidan, baina gaiak alde aurretik lantzeko asmoa izatekotan, bere aurreko lanak, “orain uko egiten diedanak” (*which I know disavow*), Levinsonen lanak eta Dodden azkenaldikoak aholkatu zizkidan, musikari dagokionez, eta Peter Lamarqueren *The Opacity of Narrative* berri samarra (2014), literaturari buruz. Horretan geratu ginen, abuztuaren 2an bidalitako mezuan bestela esan zidan arte.

Fisikoki ez zen sentitzen Atlantikoa gurutzatzeko bezain indartsu. Gaixotasun berezirik ez, esan zidan, adina besterik ez. Hurrengo urterako uztea adostu genuen. Aitatu nion bere *De Gustibusek* inspiratutako artikulua batean ari nintzela lanean, eta zirriborroa prest eduki bezain laster bidaltzeko eta gustura irakurriko zidala erantzun zidan. *De Gustibusi* buruzko galdera batzuk ere egin nizkion, eta filosofia emailez ezin diskutitu zezakeela esan zidan, nahiz eta erantzun labur batzuk ere eman. Bera Donostiara etorri aurretik, akaso ni New Yorkera joango nintzela ere komentatu nion, eta han pozik ikusiko nindukeela erantzun zidan.

2016ko irailaren 14koa da bere azken mezua. Nik bidalitako artikulua irakurriko zuela esan zidan, eta baita honako hau ere:

(“Urrezko urteak” batez ere medikuen kontsultetan pasatzen ditu batek.) Uste dut nire mediku-arazoak konponduko direla, eta 2017an bidaiatzeko pronto egotea espero dut. Hortaz, datorren urtean noizbait Donostia bisitatzea posible izango da, beharbada.¹⁹

2017ko maiatzaren 6an zendu zen.

4. Kivyren uzta hemen

Nire artikulua bere komentariarik gabe geratu zen. Agirrebaltzategik ezin izan zituen tesiaren edukiak berarekin eztabaidatu; ezin izan genuen tesi-epaimahaiari eduki. Ezin izan genituen entzun musikaren ontologiari buruzko bere teoria berriaren nondik norakoak, bere aurreko platonismoari egindako ukoaren arrazoiak ezagutu. Uko horrek zenbateraino eragiten zien musikaren esanahiari buruzko bere formalismo “hobetuari” edo arteari buruzko bere ikuspegi orokorrari. Esango nuke ez duela zertan askorik eragin, baina egongo da nirea baino ahots jantziagorik eta abagune egokiagorik halakoei buruz zertzelada espekulatibo batzuek harago joateko.

Kontua da nik bukatu nuela nire artikulua eta hari eskaini ahal izan niola (Korta 2017). Agirrebaltzategik ere bukatu zuen bere doktorego-tesia (2017ko irailean), eta geroztik Fernández-Cotarelok (2021eko urtarrilean) ere bukatu zuen berea, dantzari buruzkoa, eta hirurok izan genuen, gutxiago edo gehiago, Kivyren lanaren eragina.

¹⁸ Mezueta eta baita artiboaren izenean ere “Lana eta prototipoa” (*Work and Prototype*) esaten dio berak, baina testu berean “gisa” (as) darabil.

¹⁹ [(One's "golden years" are spent mostly in doctors' offices.) I believe all of my medical problems will be resolved, and I hope to be ready to travel in 2017. So perhaps a visit to Donostia will be possible sometime in the coming year.]

Geroztik ere ari dira egiten gurean ikuspegi analitikoetik musikaren, literaturaren eta, oro har, artearen filosofia eta estetikako ikerketa-lanak (graduak, masterrekoak, doktoregokoak eta bestelakoak). *Donostia Aesthetics Forum* mintegi edo hitzaldi-sorta ere jaioa da ILCLlren inguruan. Jakin ala ez, Kivyrekin zorretan egongo dira guztiak hemen azaldutako soka honekin loturaren bat baldin badaukate.

Inoiz azalduko da *Gogoan Kivyren Behin batean (Once upon a Time)* 2019ko liburuaren kritika ere. Barrunbeak estutu zitzaizkidan dauzkan zortzi kapituluetatik sei gure laburpenei, musikaren filosofiari buruzkoei ez beste guztiei, dagozkiela egiaztatu nuenean. *Literaturaren Filosofiako Saiakerak* dauka azpititulu. Bidean izango da agian musikari buruzko beste liburu bat, besteak beste, guri bidalitako lau laburpenei dagozkien artikulua bana daukana. Gustura irakurriko genuke hori ere.

Bukatzeko, hona hemen bere liburuaren zerrenda, horietan murgilduz Kivyren uztaren parte izan nahi duenarentzat. Besteren bildumatan argitaratutako liburu-kapituluak eta aldizkarietako artikulua sartu bagenu, gehiegitxo luzatuko litzateke. Baina haietako edozein izan liteke XX. mendeko musikaren filosofo analitiko handienetako baten lanarekin goatzeko bidea. Heriotzaz ari garela, eta musikaz, Kivy omentzeko modu egokia izan liteke Bachen *Magnificat* entzun, eta “Ez al da ezer sakraturik? Ateo batentzako artea” irakurtzea (“Is nothing sacred? Art for an atheist”, *Sounding off* (2012) liburuko 7. kapitulua), ateo batek ateo bat “Goian bego” hitzekin agurtzea baino askoz egokiagoa, zinez.

5. Kivyren liburuak

1973. *Speaking of Art*. Haga: Martinus Nijhoff.

1980. *The Corded Shell: Reflections on Musical Expression*. Princeton: Princeton University Press.

1984. *Sound and Semblance: Reflections on Musical Representation*. Princeton: Princeton University Press.

1989. *Sound Sentiment: An Essay on Musical Emotions*. Philadelphia: Temple University Press.

1990. *Music Alone. Philosophical Reflections on the Purely Musical Experience*. New York: Cornell University Press.

1993. *The Fine Art of Repetition. Essays in the Philosophy of Music*. Cambridge: Cambridge University Press.

1995. *Authenticities. Philosophical Reflections on Musical Performance*. Itaka: Cornell University Press.

1997. *Philosophies of Art. An Essay in Differences*. Cambridge: Cambridge University Press.

1999. *Osmin's Rage. Philosophical Reflections on Opera, Drama, and Text*. 2. edizioa. Itaka: Cornell University Press.

2001. *The Possessor and the Possessed. Handel, Mozart and Beethoven and the Idea of Musical Genius*. New Haven: Yale University Press.

2001. *New Essays on Musical Understanding*. Oxford: Clarendon Press.

2002. *Introduction to a Philosophy of Music*. Oxford: Clarendon Press.

2003. *The Seventh Sense. Francis Hutcheson and Eighteenth-Century British Aesthetics*. 2. edizioa. Oxford: Clarendon Press.

2006. *The Performance of Reading: An Essay on the Philosophy of Literature*. Oxford: Blackwell.

2007. *Music, Language and Cognition*. Oxford: Clarendon Press.

2009. *Antithetical Arts: On the Ancient Quarrel between Literature and Music*. Oxford: Oxford University Press.

2011. *Once-Told Tales. An Essay in Literary Aesthetics*. Oxford: Blackwell.

2012. *Sounding Off*. Oxford: Oxford University Press.

2015. *De Gustibus. Arguing about Taste and Why We Do It*. Oxford: Oxford University Press.

2019. *Once upon a Time. Essays in the Philosophy of Literature* (Aaron Meskinek atondua). Londres: Rowman & Littlefield.

Erreferentziak

- Agirrebaltzategi, Ana. 2014. *The Place of Emotions in Music*. Master-tesia, UPV/EHU.
- Agirrebaltzategi, Ana. 2017. *Emotions as Aesthetic Properties of Absolute Music*. Doktore-tesia, UPV/EHU.
- Cocquyt, Hilde. 2014. *An Inquiry into Art Induced Epiphanies*. Master-tesia, UPV/EHU.
- Fernández Cotarelo, Aida. 2015. *An Agent-Centered Approach to Dance Improvisation*. Master-tesia, UPV/EHU.
- Fernández Cotarelo, Aida. 2021. *The Appreciative Experience of Dance as Art: A conceptual and empirical investigation*. Doktore-tesia, UPV/EHU.
- Jackendoff, Ray eta Fred Lerdahl. 1983. *A Generative Theory of Tonal Music*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Kivy, Peter. 1993. *The Fine Art of Repetition. Essays in the Philosophy of Music*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Kivy, Peter. 2007. *Music, Language, and Cognition*. Oxford: Oxford University Press.
- Kivy, Peter. 2012. *Sounding Off*. Oxford: Oxford University Press.
- Kivy, Peter. 2015. *De Gustibus. Arguing about Taste and Why We Do It*. Oxford: Oxford University Press.
- Kivy, Peter. 2019. *Once upon a Time. Essays in the Philosophy of Literature* (Aaron Meskinek atondua). Londres: Rowman & Littlefield.
- Korta, Kepa. 2003. "Peter Kivy: Introduction to a philosophy of music". *Gogoa* III-2: 291-95.
- Korta, Kepa. 2016. "Peter Kivy: De Gustibus. Arguing about Taste and Why We Do It". *Gogoa* 15: 43-66. DOI: 10.1387/gogoa.17257
- Korta, Kepa. 2017. "The meanings and contents of aesthetic statements". In R. Giora eta M. Haugh (arg.), *Doing Pragmatics Interculturally: Cognitive, Philosophical and Sociopragmatic Perspectives on Language*. Berlin: Mouton de Gruyter, 399-417.
- Korta, Kepa eta Jesus M. Larrazabal (arg.). 2004. *Truth, Rationality, Cognition and Music*. Dordrecht: Kluwer.
- Lamarque, Peter. 2014. *The Opacity of Narrative*. Londres: Rowman & Littlefield.
- Recabarren, Carlos Nahuel. 2015. *An investigation into the meaning of non-linguistic art*. Master-tesia, UPV/EHU.
- Sibley, Frank. 1959. "Aesthetic Concepts". *Philosophical Review* 68: 421-50. Berrargitaratua in P. Lamarque eta S. H. Olsen (arg.), 2004, *Aesthetics and the of Art. The Analytic Tradition*. Oxford: Blackwell, 127-41.